



ELA eta LAB sindikatuek duela bi aste emandako prentsaurrekoa, Hobetuz gaiaren inguruan.

Euskal esparru sozioekonomikoa, lortzeke dagoen helburua

Euskal Herriko egungo testuinguruari erreparatzen badiogu, herriak burujabetza nazionalik ez duela, administrazioa banatuta dagoela eta eskumenak mugatuta eta usurpatuta daudela ikusiko dugu. Hori dela-eta, ez da batere erraza euskal esparru sozioekonomikoa (EESE) egituratzearen alde serio lan egitea. Esparru horrek, era berean, lan harremanetarako eta babes sozialerako (LHEE) euskal esparrua garatu behar du.

JUAN MARI ARREGI

Argakia: L. Jauregiartzo / Argazki Press

EUSKAL ESPARRU SOZIOEKONOMIKOA egituratzeko, Euskal Herriko erakundeek eta gizarte-eragileek legegintza ahalmen eta eskumen ekonomiko, sozial eta laboral guztiak izan behar dituzte. Beraz, argi dago lan araudi propio bat egin behar dela, azken urte hauetan Espainiako eta Frantziako legediek langileen eskubideei eragindako kalteei heldu ahal izateko. Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozialek definitu behar dute araudi hori, sektore publikoan nahiz pribatuan. Lan harremanen eredu horrek euskal esparruko negoziazio kolektiboak behar ditu; euskal patronalek eta sindikatuek erabaki behar dute lan harremanen eredia. Horrenbestez, esparru propio bat behar da negoziazio kolektibo sektorialak, sektore artekoak, publikoak eta pribatuak egituratu ahal izateko.


EESEk, besteak beste, honako alderdi hauek barne hartuko lituzke: lan arriskuak prebenitzeko eredia; lan osasunari arreta emateko sistema publiko integrala; lanbideen arteko gutxieneko soldata zehaztea; lan egutegi propioa egitea; gizarte segurantzako sistema propioa sortzea (pentsioak) eta haren finantza eta antolaketa zehaztea; lan politika aktiboak, lan zerbitzuak edo institutuak sortzea (Nafarroan, EAEn eta

Iparaldean); lanbide heziketarako sistema propioa; gaur egungo erakunde propioak eratzea: hala nola, Lan Harremanen Kontseilua, Lan Epaitegia, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak, Iparraldeko Garapen Kontseilua, Industria Mahaia, Funtzio Publikoaren Kontseilua, Osalan eta Lan Osasunaren Institutu Nazionala (INSL) –krisi sakonean dago gaur egun– eta abar.



Aitortu beharra dago Euskal Herriko erakundeek ez dituztela funtsezko hainbat baliabide honako gai hauetan politika propioa egiteko: laneko legeria, gizarte segurantza, funtzio publikoa, lan politika, lanbide heziketa, justizia administrazioa, lan ikuskapena... Ez dute eskumenik arlo horietan aritzeko, eta, baldin badute, utzitakoa eta bigarren mailakoa da. Horrek guztiak adierazten du motza dela EAEko Autonomia Estatutuaren testuko eskumenen alorra, bai eta Nafarroako Forua Birrezarri eta Hobeagotzeko Legearena ere.

Borondate politiko, sozial eta sindikala

EESE sortzeko, beraz, gogor ahalegindu behar dute esparru sozioekonomikoarekin zerikusia duten alderdi guztiek: gizarte eragi-



Dive Tarpoon Urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 Getxo
Tel / Faxa: 94 4912577
e-posta: divetarpoon@euskalnet.net
web orria: www.divetarpoon.com

le, enpresa eragile eta eragile sindikal, ekonomiko, politiko eta instituzionalek. Hau da, euskal esparru sozioekonomikoa eratu, sustatu eta eskatu nahi bada, borondate politikoa, instituzionala eta soziala nahiz sindikala behar dira.

Gaur egun, ordea, errealitatea erdiragarria da, eta EESE egituratzetik oraindik oso urrun gaudela erakusten digu. Borondate politikoak ez du garapen eredu bat edo LHEE eremu propioa sortzea lehenesten. Patronalek ez dute parte-hartze publikorik nahi antolaketa ekonomikoan eta lan harremanen Espainiako esparruak ematen dizkien abantailekin ados daude. Patronalak, CCOOk, UGTk eta Frantziako Estatuaren sindikalismoak, benetan, uko egiten diote LHEE sortzeari. EAeko Gobernuak eta Nafarroakoak borroka instituzionalean dihardute, eta horrek zail egiten du EESE sortzeko proiektuan biak batera lanean aritzea. Horrez gain, Iparraldean ez dago erakunde nahikorik. Horrenbestez, egoera horren ezkorra izanik, batzuen ustez, Euskal Herria burujabe eta independente izan arte, nekez sortuko da EESE.

Hobetuz, "Madrilgo sukurtsal bat"

Hobetuz Fundazioa EAeko langileen etengabeko lanbide heziketaz arduratzen da. Erakundeek beraiek –kasu honetan EAren esku dauden erakundeek– euskal esparru sozioekonomikoa trazionatzen dutela erakusten duen adibide paradigmaticoa da fundazioa. Hori horrela izanik, ELAren eta LABen –Euskal Herriko gehiengo sindikala osatzen dute– ahaleginaren eta lanaren aurka egiten dute erakundeek. Hobetuz 1995ean sortu zen, baina gaur egun krisi egoera larrian dago. Espainiako beste gobernuak, CEOEk (Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioak), CCOOk eta UGTk ez dute inoiz onartu etengabeko lanbide heziketa Madrilen kontrolpetik at egotea. Confebaskek ere horiek bat egin du.

Hamaika urtez etengabeko borrokan aritu eta gero, Lakuako Hezkuntza Sailak amore eman eta Madrilen interesen alde egin du Euskal Herriko gehiengo sindikalaren iritzia alde batera utzita. Madrilgo Gobernuak eta CEOE, CCOO eta UGTko goi karguek Estatu osorako ezarritako etengabeko lanbide heziketaren eredia EAEn erabiltzea onartu du Hezkuntza Sailak. Horrek heziketa planen eta milioi askoko funtsa ekonomikoen kudeaketa sindikatu eta patronal espainiar horien esku uztea dakar. Sindikatu abertzaleek kritikatu egin dute neurri hori, eta horrela EAEn eman beharreko lanbide heziketa eta joko arauak Euskal Herrian erabakitzeari eta adosteari uko egiten zaiola diote. Gasteizek "Espainiako ordezkariordetza izatea onartu du beste batzuek diotena egiteko". Horrela, Hobetuz "Espainiako Estatuko Administrazioaren leihatila bihurtu dute". Horixe, "Madrilgo sukurtsal" bat. ■